



Usurbilgo Udala

2024/04/30

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2024KO APIRILAREN 30EAN  
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Agurtzane Solaberrieta Mesa.

**Zinegotziak:** Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi eta Xabat Beloki Segurola.

**Idazkaria:** Xabin Juaristi Arrieta.

Ez da bertaratu: Joxe Mari Lizaso Azkonobieta.

**1.- 2024KO MARTXOAREN 26KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.**

Batzarkideek 2024ko martxoaren 26ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- I-REDES ELÉCTRICAS INTELIGENTES S.A.U. ENPRESARI, IRUBIDEN ST USURBIL 132/30 KV-KO TRANSFORMAZIO AZPIESTAZIO ELEKTRIKOA ERABERRITZEKO OBRAK HASTEKO HIRU HILABETEKO LUZAPENA ONARTZEA (HZ.04/2021-0376).**

**AURREKARIAK**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko irailaren 27an egindako ohiko bilkuran zera erabaki zuen: I-DE REDES ELECTRICAS INTELIGENTES S.A.U. enpresari, Irubiden, ST USURBIL 132/30 kV-ko transformazio azpiestazioa elektrikoa eraberritzeko obretarako udal baimena ematea.

Interesatuak EIOZ eta tasa (98.737,81 €) ordaindu ditu eta hondakinen kudeaketa bermatzeko 34.007,52 € fidantza jarri zuen (2022-JBAL-10).

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko maiatzaren 8an egindako ezohiko bilkuran zera erabaki zuen: I-DE REDES ELECTRICAS INTELIGENTES S.A.U. enpresari, Irubiden, ST USURBIL 132/30 kV-ko transformazio azpiestazioa elektrikoa eraberritzeko obrak hasteko HIRU HILABETEKO luzapena onartzea, aurreko epea amaitzen denetik (2023ko apirilaren 6tik) kontaktzen hasita.

**OBRA BAIMENAREN LUZAPEN BERRIA**

Orain berriz, I-DE REDES ELECTRICAS INTELIGENTES S.A.U. enpresak, Irubiden, ST USURBIL 132/30 kV-ko transformazio azpiestazioa elektrikoa eraberritzeko obretarako udal baimenaren luzapen berria eskatu du.

**TXOSTEN TEKNIKOA**



Usurbilgo Udala

2024/04/30

Udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, espedientea eta aurkeztutako eskaera aztertu ostean, 2024ko apirilaren 3an ALDEKO txostena eman du. Hitzez hitz honela dio:

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate andreari**  
**OBRA HANDIAK**  
**ST USURBIL 132/30 KV-KO TRANSFORMAZIO AZPIESTAZIOKO 132 KV-KO**  
**SISTEMA ERABERRITZEKO OBRA BAIMENAREN LUZAPEN ESKAERARI**  
**TXOSTENA**

---

ESKATZAILEA: I-DE REDES ELECTRICAS INTELIGENTES S.A.U.  
ESKAERA: ST Usurbil 132/30 kV-ko Transformazio Azpiestazioko 132 kV-ko sistema eraberritzeko obra baimenaren luzapena  
ESKAERA DATA: 2024ko otsailaren 19an  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2021-0376  
AURREKONTUA (PEM): 1.973.802,00 euro  
HONDAKINEN KUDEAKETA (PEM): 28.339,60 € FIDANTZA (%120): 34.007,52 €

---

**AURREKARIAK**

- 2021eko urriaren 10ean, Santiago Mayner Eiguren jaunak, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes enpresaren izenean, Usurbilgo azpiestazio elektrikoa berritzeko udal-baimena eskatu zuen.
- 2022ko maiatzaren 11n, interesdunak Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomiko, Jasangarri eta Ingurumen Sailaren baimena aurkeztu zuen.
- 2022ko maiatzaren 19an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak aldeko txostena igorri zion Usurbilgo Udalari.
- 2022ko abuztuaren 17an, posta elektronikoaren bidez, Santiago Mayner Eiguren jaunak, I-DE Redes Eléctricas Adimendunak ordezkatzuz, eskatutako obra-baimenari lotutako hondeaketa-plana aurkeztu zuen.
- 2022ko irailaren 21ean udal arkitektoak aldeko txostena idatzi zuen.
- 2022ko azaroaren 21ean, interesdunak Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren ebazpena aurkeztu zuen, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko salbuespena I-DE REDES INTELIGENTES S.A.U. enpresak aurreikusitako eta "132 kV-ko sistema trinkotzeko eraikuntza-proiektuari lotutako indusketa-plana eta Usurbilgo I-DE T-3 transformadorea ordezkatzeara" izeneko dokumentuan definitutako jarduketari aplikatu dakiokela adierazten duena, eta plan hori gauzatzeko baimena ematen duena.
- 2023ko martxoaren 24an, interesdunak obra baimenaren luzapena eskatu du.
- 2023ko apirilaren 26an udal arkitektoak aldeko txostena idatzi zuen.
- 2024ko otsailaren 19an, interesdunak obra baimenaren luzapena eskatu du.

**TXOSTENA**

Juan Antonio Gonzalez Ramos jaunak, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes enpresaren izenean, obrak hasteko epea amaitu baino lehen, Usurbilgo azpiestazio elektrikoa berritzeko udal-baimenaren luzapena eskatu du.

Aurkeztutako idatzian azaltzen duenez, ezin izan dira obrak lizentzian



Usurbilgo Udala

2024/04/30

ezarritako epean hasi, haren ordezkatuaren borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla eta.

Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren arau orokorrek honela diote baimenen luzapenei buruz:

**28. artikulua.- Lizentzien luzapena**

*1. Lizentziaren indarraldia, interesatuak idatziz egindako eskabidearen bidez bakarrik luza daiteke. Eskabide hori, lizentziaren agorpenaren aurretik eta behar bezala justifikatutako zergatiengatik gauzatuko da.  
(...)*

Bestetik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, honakoa dio:

**Artículo 32. Ampliación.**

*1. La Administración, salvo precepto en contrario, podrá conceder de oficio o a petición de los interesados, una ampliación de los plazos establecidos, que no exceda de la mitad de los mismos, si las circunstancias lo aconsejan y con ello no se perjudican derechos de tercero. El acuerdo de ampliación deberá ser notificado a los interesados.*

**ONDORIOA**

Goian esandakoa kontuan hartuta, obrak hasteko HIRU HILABETEKO luzapena onartzen da.

Obra egikaritzeko eta geldituta egon daitekeen gehienezko epeak Tokiko Gobernu Batzarrak emandako baimenean ezarritako berberak izango dira:

- Obra egikaritzeko gehienezko epea: 24 hilabete
- Obra geldituta egon daitekeen gehienezko epea: 6 hilabete.

Usurbilen, sinadura-datan  
Udal Arkitektoa

Izta.: Amaia Illarreta Izeta

Guzti hau kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

**E R A B A K I A**

**LEHENDABIZI:** I-DE REDES ELECTRICAS INTELIGENTES S.A.U. enpresari, Irubiden, ST USURBIL 132/30 kV-ko transformazio azpiestazioa elektrikoa eraberritzeko obrak hasteko HIRU HILABETEKO luzapena onartzea.

**BIGARRENA:** Obra egikaritzeko eta geldituta egon daitekeen gehienezko epeak Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko irailaren 27an emandako baimenean ezarritako berberak izango dira:



Usurbilgo Udala

2024/04/30

- Obra egikaritzeko gehienezko epea: 24 hilabete
- Obra geldituta egon daitekeen gehienezko epea: 6 hilabete.

**HIRUGARRENA:** Gainontzekoan Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko irailaren 27an emandako baimenean ezarritako baldintzak beteko dira.

**LAUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari emango zaio.

### **3.- IRISASI ADINGABEEN ZENTROKO (URDAIAGA 43, 1) ERDISOTOKO SOLAIRUA ERABERRITZEKO OBRETARAKO UDAL BAIMENA EMATEA (2023OHAN0024).**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Zaintza eta Gizarte Politiketako Departamentuaren ordezkartzan diharduen NEREA ASTIBIA MAKATZAGA andereak, Irisasi adingabeen zentroko (Urdaiaga 43, 1) erdisotoko solairua eraberritzeko udal baimena eskatu du.

#### TXOSTEN TEKNIKOA

Aurkeztutako Oinarrizko Proiektua aztertu ostean, udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, 2024ko apirilaren 3an honako txostena eman du:

**11\_2023OHAN024**

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate andreari**  
**OBRA HANDIAK**

**IRISASI ADINGABEEN ZENTROKO (URDAIAGA 43, 1) ERDISOTOKO SOLAIRUA ERABERRITZEKO OBRA BAIMEN ESKAERARI TXOSTENA**

---

ESKATZAILEA: Gipuzkoako Foru Aldundia

ESKAERA: Irisasi adingabeen zentroko erdisotoko solairua eraberritzea

ESKAERA DATA: 2023-12-18

KOKAPENA: Urdaiaga 43, 1 Usurbil

ESPEDIENTE ZENBAKIA: 2023-OHAN-024 (HZ.04/2023-481)

AURREKONTUA (PEM): 377.680 euro

HONDAKINEN KUDEAKETA (PEM): 4.606 € FIDANTZA (%120): 5.527,2 €

---

#### **AURREKARIAK**

2023ko abenduaren 18an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuak Irisasi adingabeen zentroko erdisotoko solairua eraberritzeko obra baimena eskatu zuen.

2024ko otsailaren 14ean Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentura igorri zen espedientea.

2024ko martxoaren 5ean Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuaren erantzuna jaso zen, besteak beste, txostenik egitea ez dagokiola esanez.

#### **TXOSTENA**



Usurbilgo Udala

2024/04/30

Aurrekarietan esan bezala, adierazitako obra baimena eskatzearekin batera, interesdunak dagokion Oinarrizko Proiektua aurkeztu du. Dokumentuak jasotzen ditu: memoria, planoak eta aurrekontua. Guztia Enrique Erro García arkitekto teknikoak sinatua eta dagokion elkargoak ikus- onetsi gabe dago.

Memorian adierazten denez, Oinarrizko Proiektuan jasotzen diren eskuhartzeak honako hauek dira:

- A. Erradicación de humedades en planta semisótano*
- B. Sustitución de la red enterrada de saneamiento de fecales*
- C. Sustitución de fosa séptica existente en la urbanización*
- D. Mejora de condiciones de iluminación y ventilación natural.*
- E. Aumento del espacio de taller actual, acondicionándolo como sala actividades, juegos y/o sala polivalente.*
- F. Adecuación de las estancias de zonas de trabajo a las necesidades reales.*
- G. Adecuación del sistema de producción de ACS y calefacción a la normativa actual*

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, honako hau esan daiteke:

- DOKUMENTAZIOAREN EGOKITASUNA: Proiektua dagokion teknikari eskudunak sinatuta dago. Eraikuntzako Kode Teknikoak agintzen duen gutxieneko dokumentazioa barne hartzen du, hortaz, ontzat ematen da.
- HIRIGINTZA ARAUDIA BETETZEA: Usurbilgo Planeamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren arabera, Irisasi zentroa Urdaiaga auzoan kokatuta dago; lurzoru ez urbanizagarri sailkapena eta Oriako Itsasadarraren Ertzen Babeseko lurzoru ez-urbanizagarri kategoria duen eremuan, hain zuzen. Dena den, eskuhartzea baloratzeko orduan kontuan hartuko da dagoeneko eraldatuta dagoen eremua dela.
- Eskuhartze gehienak eraikinaren barruan egikaritutako dira eta baimengarriak direla esan behar da.

Ur beroaren produkzio eta berokuntza sistemen egokitzapenari dagokionez, proposatzen dena honako hau da: **“se propone una sustitución de los equipos generadores, por caldera de biomasa con un almacén de pellets adosado, y en vista de las necesidades actuales de ledificio en cuanto a espacio para las nuevas estancias, su instalación fuera del edificio y dentro de la propia parcela, mediante recinto prefabricado, uniéndose la nueva caldera con una nueva sala de máquinas por medio de dos tuberías pre-aisladas que discurrirán enterradas por el interior de la parcela.”**



Usurbilgo Udala

2024/04/30

Proposamenaren justifikazioa egungo araudira egokitzean, segurtasuna irabaztean eta eraikinaren erabilera nagusirako espazioa irabaztean oinarritzen da, batik bat. Aspektu guztiak kontuan hartuta, onargarria dela esan daiteke.

- EKT ETA GAINONTZEKO ARAUDIA: Orohar, bai EKT bai aplikagarria den gainontzeko araudia betetzearen justifikazioa aurkeztu da eta ontzat eman daitekeela esan behar da. Nolanahi ere, Exekuzio Proiektuak aplikagarriak diren araudiak justifikatu beharko ditu (EKT, Behe-Tentsioko Erreglamendu Elektroteknikoa (BTEE), Eraikinetako Instalazio Termikoen Erreglamendua (EITE), etab.)
- IRISGARRITASUN ARAUDIAREN BETETZEA: Ezinbestean bete beharko da indarrean diren EKT-DB-SUA eta Irisgarritasun Araudia (1997ko Legea eta ingurune hiritar eta eraikinetako arau teknikoari buruzko 68/2000 Dekretua). Aurkeztutako justifikazioa ontzat eman daiteke. Exekuzio Proiektuak ere irisgarritasuna betetzearen justifikazioa jaso beharko du.
- EXEKUZIO PROIEKTUA: Obrak hasi baino lehen teknikari gaituak izenpetutako eta dagokion Elkargoak ikus-onetsitako Exekuzio Proiektua aurkeztu beharko da, Kode Teknikoak ezarritako gutxienezko dokumentazioa barneratuko duena.
- HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA: Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 4.606 eurokoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batera (5.527,2 euro). Fidantza itzultzeko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuta (112/2012 Dekretuaren 6. artikuluari jarraiki). Oro har, bete beharko dira RD 105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
  - Obra hasteko gehienezko epea: 6 hilabete.
  - Obra geldituta egon daitekeen gehienezko epea: 6 hilabete.
  - Obra egikaritzeko gehienezko epea: 12 hilabete

## ONDORIOA

Goian esandakoa jarraiki, Irisasi adingabeen zentroko erdisotoko solairua eraberritzeko Oinarrizko Proiektuari ALDEKO txostena idazten zaio, eta honako hau proposatzen da:

**LEHENA:** Irisasi adingabeen zentroko erdisotoko solairua eraberritzeko OBRA BAIMENA ematea.

**BIGARRENA:** Obrak hasi baino lehen baldintza hauek bete behar



Usurbilgo Udala

2024/04/30

dira:

- Teknikari gaituak sinatu eta dagokion elkargoak ikus-onetsitako Exekuzio Proiektua aurkeztu behar da, dagokion justifikazio eta agiriekin.
- Obrak hasi baino lehen hondakinen kudeaketari dagokion fidantza ordaindu beharko da.
- Zuinketa akta sinatzea.

Hori da behean sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste batzuen kaltetan izan gabe. Udalari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, sinaduraren datan.  
Udal arkitektoa  
Izta.: Amaia Illarreta Izeta

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** Gipuzkoako Foru Aldundiko Zaintza eta Gizarte Politiketako Departamentuari, Irisasi adingabeen zentroko (Urdaiaga 43, 1) erdisotoko solairua eraberritzeko obretarako udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Enrique Erro García arkitekto teknikoak 2023ko abenduan idatzitako Oinarrizko Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- **Obrak hasi baino lehen** teknikari gaituak izenpetutako eta dagokion Elkargoak ikus-onetsitako Exekuzio Proiektua aurkeztu beharko da, Kode Teknikoak ezarritako gutxieneko dokumentazioa barneratuko duena. Exekuzio Proiektuak ere irisgarritasuna betetzearen justifikazioa jaso beharko du.
- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean:**

Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 4.606,00 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (5.527,20 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

**5.527,20 €-ko fidantza**, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean



Usurbilgo Udala

2024/04/30

sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: 2023-OHAN-0024*” jarriaz kontzeptuan.

- Ezinbestean indarrean dagoen araudia bete beharko da, bai EKT bai aplikagarria den gainontzeko araudia: Behe-Tentsioko Erreglamendu Elektroteknikoa (BTEE), Eraikinetako Instalazio Termikoen Erreglamendua (EITE), etab.
- Irigarritasun araudiaren betetzea. Ezinbestean bete beharko da indarrean diren EKT-DB-SUA eta Irigarritasun Araudia (1997ko Legea eta ingurune hiritar eta eraikinetako arau teknikoari buruzko 68/2000 Dekretua).
- Zuinketa akta. Obrak hasteko zuinketa akta izenpetu beharko da.
- Obra baimenaren epeak:
  - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obraren egikaritzea epe gehiengoa: 12 hilabete.
- Indarrean den araudi aplikagarria betetzen ez duen ezaugarri, elementu edota obraren bat barneratzen badu proiektuak, ezinbestean araudira egokitu beharko da eta, beraz, ez da baimen honetan inplizituki ontzat ematen.
- **Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:**
  - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
  - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
  - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
  - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
  - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

**4.- HAAS-ETAKO A-59 (UGARTONDO) EREMUKO BARNE-ERREFORMARAKO PLAN BEREZIAREN TESTU BATEGINEKO EQ.1 PARTZELAN ERAIKITAKO ZUZKIDURA-EKIPAMENDUARI (LAKIZAR KALEA 2) LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (HZ.04/2020-0265).**

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Plenoak, 2021eko apirilaren 29an zera erabaki zuen: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako





Usurbilgo Udala

2024/04/30

A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan zuzkidura-ekipamendua eraikitzeko Exekuzio Proiektua onartzea, udal teknikariek ezarritako baldintzekin.

2021eko abenduaren 16an, zuinketa egiaztagiria izenpetu eta obrak hasi ziren.

### LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, obra zuzendaritzak obra amaierako dokumentazioa aurkeztu du. Domunetazioa Manu Arruabarrena, Santiago Peñalba eta Iñigo Peñalba arkitektoek, eta Daniel Barroso arkitekto teknikoak sinatua, eta dagokion elkargoak ikus-onetsita dago. Udalari dagokio lehen erabilera baimena ematea.

### TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman dio 2024ko apirilaren 23an.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan eraikitako zuzkidura-ekipamenduari (Lakizar kalea 2) lehen erabilera baimena ematea.

**BIGARRENA:** Erabaki hau Errenta eta Ondare Teknikaria ematea.

**5.- HAAS-ETAKO A-58 (IPARRALDE) EREMUAN, IPARRALDE ETXEAN (UGARTE KALEA 3), BEHE SOLAIRUAN, ESKUINEKO LOKALEAN, MOLDATUKO DEN ETXEBIZITZARI UDAL ETXEBIZITZA TASATUAREN BEHIN BEHINGO KALIFIKAZIOA EMATEA ETA ETXEBIZITZA MOLDATZEKO OBRETARAKO UDAL BAIMENA EMATEA (2023OHAN0013).**

AROA ETXEBURUA UGARTEMENDIA andereak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-58 (Iparralde) Eremuan, Iparralde etxean (Ugarte kalea 3), behe solairuan, eskuineko lokalean, etxebizitza moldatzeko obretarako udal baimena eskatu dute.

### AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzordeak, 2023ko azaroaren 28an zera erabaki zuen besteak beste:

(...)



Usurbilgo Udala

2024/04/30

**BIGARRENA:** AROA ETXEBURUA UGARTEMENDIA andereari, Udalak behin betikoz onartu duen «Hiri lurzoruan, bizitegi eremu finkatuetan merkataritzako lokalen erabilera egoitzazko erabilerara aldatzeko jardunak arautuko dituen udal ordenantza» kontutan izanik, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-58 (Iparralde) Eremuan, Iparralde etxean (Ugarte kalea 3), behe solairuan, eskuineko lokala (Erreferentzi katastrala: 7791051; lokalaren zenbaki finkoa: 5168226D) egoitzazko erabilerara aldatzeko udal baimena berrestea, ondorengo baldintzapean:

- Erabileraren aldaketa ebazpenen honen azalpenetan jasotzen den Hitzarmena jabeak eta Alkateak izenpetzen dutenean, eta segidan zehaztutako hirigintza kargak ordaindutakoan gauzatuko da.
- Obra lizentzia lortu ahal izateko, erabilera aldaketarako udal ordenantzako 6. artikuluan jasotzen den moduan, eskabidearekin batera, dagokion elkargoak ikus-onetsitako arkitekto batek idatzitako proiektu teknikoa aurkeztu beharko du.

Era berean, pertsona eragileak, etxebizitza, erabilera aldaketarako udal ordenantzako 9. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituenari, besterendu edo alokatzeko bere nahia adieraziko du.

- Erabilera aldaketarako ondoko hirigintza kargak ezartzen dira:
  - Espazio libreen sistema orokorrak osatzeko xedea duten lursailen balioa: 1.491,22 €
  - Eraikigarritasun haztatuak izandako gehikuntzaren kuota: 3.917,42 €
  - Hirigintza eta ekipamendu-gastuen kanon osagarria: 5.172,40 €
  - Guztira: **10.581,04 €**
- Baimen hau hirugarrengoen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.
- Erabileraz aldatutako lokalari, udal etxebizitza tasatuen behin betiko kalifikazioa eta lehen erabilera baimena eman aurretik, dagokion ikuskapena burutuko ostekoa aldeko txostenaz gain, beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko da (eskritura berriak etxebizitza berriaren erregimena jasoz, eta abar.)

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari jakinaraztea, Hitzarmena sina dezan.

**LAUGARRENA:** Erabaki honen berri Kontuhartzaitetzari ematea ordaindu beharreko hirigintza kargen errezibua egokitu dezan.

Lokalaren erabilera aldaketa 2024ko urtarrilaren 17an gauzatu zen M. AROA ETXEBURUA UGARTEMENDIA anderearen eta Usurbilgo Udalaren artean izenpetutako hitzarmenaren bidez. Era berean, lokalaren jabeek ezarritako hirigintza kargak (10.581,04 €) ordaindu zituen egun berean.



Usurbilgo Udala

2024/04/30

## **ETXEBIZITZA MOLDATZEKO OBRETARAKO BAIMENA**

Orain berriz, Exekuzio Proiektua aurkeztearekin batera lokala etxebizitza bihurtzeko obretarako baimena eskatzen du AROA ETXEBURUA UGARTEMENDIA andereak.

Idatzi berean, hiri lurzoruan, bizitegi eremu finkatuetan merkataritzako lokalen erabilera egoitzazko erabilera aldatzeko jardunak arautuko dituen udal ordenantzako 9., 12. eta 19. artikulua xedatzen duena kontutan izanik, zera jakinarazten digu: etxe berria lokalaren egungo jabearentzat izango dela, AROA ETXEBURUA UGARTEMENDIA anderearentzat. Etxebizitzaren erabilera erregimena berriz, salmentarena izango dela.

Udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2024ko apirilaren 5ean honako txostena eman du:

**13\_2023OHAN13**

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate andreari**  
**OBRA HANDIAK**  
**IPARRALDE ETXEKO LOKAL BATEAN ETXEBIZITZA EGOKITZEKO OBRA**  
**BAIMEN ESKAERARI TXOSTENA**

---

ESKATZAILEA: Aroa Etxeburua Ugartemendia  
ESKAERA: Iparralde etxe lokal batean etxebizitza egokitzeko obra baimena  
ESKAERA DATA: 2023-04-27  
KOKAPENA: Ugarte kalea, 3. Usurbil  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: 2023-OHAN-0013  
ERLAZIONATUTAKO ESPEDIENTEAK: 2022-HKON-0037 eta HZ.04/2021-300  
AURREKONTUA (PEM): 61.350,53 euro  
HONDAKINEN KUDEAKETA: 418,57 euro      FIDANTZA (%120): 502,28 euro

---

### **AURREKARIAK**

- 2023ko urtarrilaren 3an udal arkitektoak txostena idatzi zuen, aldaketa baimentzen duen udal ordenantzari buruzko zalantzak argitzeko.
- 2023ko apirilaren 27an Aroa Etxeburua Ugartemendia andreak aipatutako lokalean etxebizitza egokitzeko baimena eskatu du.
- 2023ko ekainaren 13an udal arkitektoak aldeko txostena egin zuen.
- 2023ko ekainaren 22an Tokiko Gobernu Batzarrak erabilera aldaketa eta hitzarmena onartu zituen.
- 2023ko abuztuaren 1ean interesatuak berraztertze errekurtsua aurkeztu zuen.
- 2023ko azaroaren 9an udal arkitektoak berraztertze errekurtsua partzialki onartzea proposatu zuen.
- 2023ko azaroaren 28an Tokiko Gobernu Batzarrak berraztertze errekurtsua partzialki onartu zuen.
- 2024ko urtarrilaren 17an Aroa Etxeburua Ugartemendiak hirigintza kargak ordaindu izanaren idatzia aurkeztu zuen.
- 2024ko urtarrilaren 17an Aroa Etxeburua Ugartemendiak eta alkateak hitzarmena sinatu zuten.



Usurbilgo Udala

2024/04/30

### **Espediente erlazionatua:**

HZ.04/2021-300 Iparralde etxean (kalezar 17) behea eskuinean lokal bat erabilera aldatzeko baimen eskaera.

2022ko urtarrilaren 14an udal arkitektoak aldeko txostena egin zuen, honako baldintzarekin:

*“Goian aipatutakoari jarraiki, Iparralde Etxeko, Kalezar 17, behe solairuan eskuinean erabilera etxebizitzara aldatzeko eskaerari ALDEKO txostena idazten zaio, baina ohartarazten da lokalaren jabeak ezin duela pertsona esleipenduna izan jabetzan 2 urte igaro arte”.*

### **TXOSTENA**

Aurrekarietan adierazitako erabilera aldaketa eskatzeko helburuarekin, interesdunak dagokion Exekuzio Proiektua aurkeztu du (Emilio Barrero Hidalgo arkitektoak sinatua eta dagokion elkargoak ikus-onetsia), honakoak jasotzen dituen, besteak beste: Memoria, Kalitate Kontroleko Plana, Hondakinen Kudeaketari buruzko Azterlana, Aurrekontua, Baldintza Plegua, Planoak eta Segurtasunari eta Osasunari buruzko Oinarrizko Azterlana. Proiektuarekin batera, bizilagunen komunitatearen onarpena ere aurkeztu da.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren esan behar da:

**UDAL ORDENANTZA BETETZEA:** Hiri lurzoruan, bizitegi eremu finkatueta merkataritzako lokalen erabilera egoitzazko erabilerara aldatzeko jardunak arautzen dituen udal ordenantzak III. atalean ezartzen ditu bete beharreko baldintza teknikoak. Memoriako justifikazioa aztertuta, esan daiteke egitasmoak oro har betetzen dituela aipatu baldintzak. Dena den, **ordenantzak 14. artikuluan hezetasunen aurkako neurrien inguruan zehaztutakoa bete beharko da, hala badagokio, beharrezko egokitzapen eta neurriak hartuz.**

**80/2022 DEKRETUA BETETZEA:** Eskuhartzeak ezinbestean bete beharko ditu 80/2022 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituenak ezarritako baldintzak. Memorian jasotako justifikazioa aztertuta, ziurta daiteke egitasmoak oro har betetzen dituela aplikagarriak diren baldintzak (segurtasun-, osasungarritasun-, sarbide- eta irisgarritasun-, espazio- eta hornidura-baldintzak, alegia).

**EKT ETA GAINONTZEKO ARAUDIA:** Bai EKT, bai aplikagarria den gainontzeko araudia (Behe-Tentsioko Erreglamendu Elektroteknikoa (BTEE), Eraikinetako Instalazio Termikoen Erreglamendua (EITE), etab.) betetzearen justifikazioa aurkeztu da eta ontzat ematen da. Edonola, indarrean den araudia bete beharko da eskuhartzearen exekuzioan.

**IRISGARRITASUN ARAUDIAREN BETETZEA:** Aurkeztutako justifikazioa aztertuta, indarrean diren EKT-DB-SUA eta Irisgarritasun Araudia (1997ko Legea eta ingurune hiritar eta eraikinetako arau teknikoak buruzko 68/2000 Dekretua) oro har betetzen direla esan daiteke.

**HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA:** Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 418,57 eurokoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin



Usurbilgo Udala

2024/04/30

batera (502,28 euro). Fidantza itzultzeko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuta (112/2012 Dekretuaren 6. artikuluari jarraiki). Oro har, bete beharko dira RD 105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

**ZUINKETA AKTA:** Obrak hasteko, hondakinen kudeaketari dagokion fidantza ezarri eta zuinketa akta izenpetu beharko da.

#### **OBRA BAIMENAREN EPEAK:**

- Obra hasteko gehienezko epea: 6 hilabete
- Obra geldituta egon daitekeen gehienezko epea: 6 hilabete
- Obra egikaritzeko gehienezko epea: 12 hilabete

**OBRA AMAIERA:** Obra amaitu ondoren, Usurbilgo Arau Subsidiarioen araudi orokorraren 16. artikuluari jarraiki, lehen erabilerako baimena lortu ahal izateko, eskerarekin batera honako dokumentuak aurkeztu beharko dira, besteak beste:

- *Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzirik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla (balizko eraldaketak), ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.*
- *Egiaz burututako lanaren planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.*
- *Eraikin edo instalaketen kanpoaldearen argazkiak.*
- *Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidatzea, lan eta instalaketen egiazko kostea adieraziz.*
- *Obra berriko deklarazioaren eskrituraren kopia.*
- *Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren alta.*
- *Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik, elektrindarraren hornikuntza sareko «Loturako Buletina»ren eta, kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako.*

**LEHEN ERABILERA BAIMENA:** Ohartarazten da ez dela lehen erabilera baimena emango pertsona esleipendunak lokala bi urtez jabetzan izan arte, 2025eko urtarrilaren 26ra arte, hain zuzen.

#### **ONDORIOA**

Goian aipatutakoari jarraiki, Iparralde etxeko behe solairuko eskuineko lokalaren erabilera aldaketaren Exekuzio Proiektuari ALDEKO txostena idazten zaio eta honako hau proposatzen da:

**LEHENA:** Iparralde etxeko behe solairuko eskuineko lokalari udal etxebizitza tasatuaren behin-behineko kalifikazioa ematea.

**BIGARRENA:** Aipatu lokalaren erabilera aldaketaren OBRA BAIMENA ematea, honako baldintza hauekin:

- Udal ordenantzak 14. artikuluan hezetasunen aurkako neurrien inguruan zehaztutakoa bete beharko da, hala badagokio, beharrezko egokitzapen eta neurriak hartuz.



Usurbilgo Udala

2024/04/30

- Obrak hasteko, hondakinen kudeaketari dagokion fidantza ezarri eta zuinketa akta izenpetu beharko da.
- Obra baimenaren epeak honako hauek izango dira:  
Obra hasteko gehienezko epea: 6 hilabete  
Obra geldituta egon daitekeen gehienezko epea: 6 hilabete  
Obra egikaritzeko gehienezko epea: 12 hilabete

**HIRUGARRENA:** Ohartaraztea ez dela lehen erabilera baimena emango pertsona esleipendunak lokala bi urtez jabetzan izan arte, 2025eko urtarrilaren 26ra arte, hain zuzen.

Hori da behean sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste batzuen kaltetan izan gabe, Udalari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, sinadura-datan.  
Udal Arkitektoa  
Izta.: Amaia Illarreta Izeta

Hala ere, hiri lurzoruan, bizitegi eremu finkatuetan merkataritzako lokalen erabilera egoitzazko erabilerara aldatzeko jardunak arautuko dituen udal ordenantzako 12. artikuluko 2. ataleko 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera, Udal Etxebizitza Tasatuaren behin behingo kalifikazioa lortu arte ez da obra lizentziarik emango.

Ordenantzaren 13. artikulua berriz, honela dio hitzez hitz:


*«Etxebizitza bihurtu nahi diren lokaletan emandako ekintzen ondoren sortuko diren etxebizitzaren behin behineko kalifikazioa, horretarako egin beharreko obren lizentziarekin batera izango dira, horregatik hau ez da emango eskatzen ez bada edo kalifikazioa beharrezkoa ez denean.»*

Udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, behin behingo kalifikazioa emateko zehaztopenak eman ditu:



Usurbilgo Udala

2024/04/30



- Espediente zenbakia: HZ.04/2023-0170 / 2023-OHAN-0013
- Sustatzailea(k):
  - AROA ETXEBURUA UGARTEMENDIA  
NAN: 72554358F  
Helbidea: Kalezar 46 / 20170 Usurbil
- Sustapenaren ezaugarriak:
  - Etxebizitza kopurua: 1
  - Etxebizitzaren azalera erabilgarria: 57,20 m<sup>2</sup>
- Etxebizitzaren erabilera erregimena: Salmenta
- Gehienezko salmenta prezioa: 208.783,22 €
- Udal Etxebizitza Tasatuaren babes erregimena eta epea:
  - Erregimen Berezia.
  - Babes iraunkorra.
- Partzelaren katastroko datuak:
  - Zenbaki finkoak: 5168226 D
  - Erreferentzi katastrala: 77 91 051

Gauzak horrela, udal arkitektoaren aldeko txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-58 (Iparralde) Eremuan, Iparralde etxean (Ugarte kalea 3), behe solairuan, eskuineko lokalean, moldatuko den etxebizitzari Udal Etxebizitza Tasatuaren behin behingo kalifikazioa ematea ondoko zehaztapenekin:



Usurbilgo Udala

2024/04/30

---

1. Espediente zenbakia:	<b>HZ.04/2023-0170 / 2023-OHAN-0013</b>
2. Sustatzailea(k):	<ul style="list-style-type: none"><li>• <b>AROA ETXEBURUA UGARTEMENDIA</b> <b>NAN: 72554358F</b> <b>Helbidea: Kalezar 46 / 20170 Usurbil</b></li></ul>
3. Sustapenaren ezaugarriak:	<ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Etxebizitza kopurua: 1</b></li><li>• <b>Etxebizitzaren azalera erabilgarria: 57,20 m<sup>2</sup></b></li></ul>
4. Etxebizitzaren erabilera erregimena:	<b>Salmenta</b>
5. Gehienezko salmenta prezioa:	<b>208.783,22 €</b>
6. Udal Etxebizitza Tasatuaren babes erregimena eta epea	<ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Erregimen Berezia.</b></li><li>• <b>Babes iraunkorra.</b></li></ul>
7. Partzelaren katastroko datuak:	<ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Zenbaki finkoak: 5168226 D</b></li><li>• <b>Erreferentzi katastrala: 77 91 051</b></li></ul>

---

**BIGARRENA:** AROA ETXEBURUA UGARTEMENDIA andereari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-58 (Iparralde) Eremuan, Iparralde etxean (Ugarte kalea 3), behe solairuan, eskuineko lokalean, etxebizitza moldatzeko obretarako udal baimena ematea, ondorengo baldintza bereziak betetzekotan:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**
  - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 418,57 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (502,28 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

**502,28 €-ko fidantza,** Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu





Usurbilgo Udala

2024/04/30

korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: 2023-OHAN-0013*” jarriaz kontzeptuan.

- Emelio Barrero Hidalgo arkitektoak 2023ko martxoan idatzitako Exekuzio Proiektuari (COAVN 2023-03-30) egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Hiri lurzoruan, bizitegi eremu finkatuetan merkataritzako lokalen erabilera egoitzazko erabilerara aldatzeko jardunak arautzen dituen udal ordenantzak 14. artikuluan hezetasunen aurkako neurrien inguruan zehaztutakoa bete beharko da, hala badagokio, beharrezko egokitzapen eta neurriak hartuz.
- Eskuhartzeak ezinbestean bete beharko ditu 80/2022 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituenak ezarritako baldintzak.
- Eskuhartzeak ezinbestean bete beharko ditu bai EKT, bai aplikagarria den gainontzeko araudia (Behe-Tentsioko Erreglamendu Elektroteknikoa (BTEE), Eraikinetako Instalazio Termikoen Erreglamendua (EITE), etab.)
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
  - o Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - o Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - o Obraren egikaritze epe gehiengoa: 12 hilabete.
- Obrak hasteko, zuinketa akta izenpetu beharko da.
- Obra amaitu ondoren, Usurbilgo Arau Subsidiarioen araudi orokorraren 16. artikuluari jarraiki, lehen erabilerako baimena lortu ahal izateko, eskerarekin batera honako dokumentuak aurkeztu beharko dira, besteak beste:
  - *Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzirik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla (balizko eraldaketak), ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.*
  - *Egiaz burututako lanaren planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.*
  - *Eraikin edo instalaketaren kanpoaldearen argazkiak.*
  - *Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidatzea, lan eta instalaketaren egiazko kostea adieraziz.*
  - *Obra berriko deklarazioaren eskrituraren kopia.*
  - *Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren alta.*
  - *Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik, elektraindarraren hornikuntza sareko «Loturako Buletina»ren eta, kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako.*



Usurbilgo Udala

2024/04/30

- **LEHEN ERABILERA BAIMENA:** Ohartarazten da ez dela lehen erabilera baimena emango pertsona esleipendunak lokala bi urtez jabetzan izan arte, 2025eko urtarrilaren 26ra arte, hain zuzen.
- Lehen erabilera lizentzia lortzeko nahitaez izan beharko du etxebizitza berriak hiri zerbitzuetako sareetarako konexioa: ur hornidura, saneamendua, energia elektrikoko hornidura eta, hala badagokio, gas hornidurarako konexioa.
- Lehen erabilerarako lizentzia urbanistikoa eskuratzeko beharrezkoa izango da eragileak aurretik edo une berean, **behin betiko** Udal Etxebizitza Tasatuaren kalifikazioa lortzea, etxebizitza behin behineko kalifikazioaren zehaztasunen arabera egin dela egiaztatuz.
- Obra berriko aitortpena. Obra berriko aitortpena, behin betiko kalifikazioa eskuratzen den unetik kontatzen hasita hilabeteko epean formalizatu beharko da eskritura publiko bidez. Eskriturak Udal Etxebizitza Tasatuaren behin betiko kalifikazio iraunkorra jasoko du, eta Usurbilgo Udalaren edo, subsidiarioki, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aldeko lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea onartu beharko da, etorkizuneko eskualdatzeetarako. Obra berriko aitortpenak Usurbilgo Udalaren alde aurreko onespina eskuratu beharko du eta onespina hori gabe ezingo da Jabetza Erregistroan inskribatu. Interesatuak eskrituraren kopia bat emango dio Usurbilgo Udalari, behin Jabetzaren Erregistroan izena eman eta gero.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
  - o Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
  - o Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
  - o Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabeko segurtasun neurriak beteko dira.
  - o Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**LAUGARRENA:** Aldez aurretik obrari dagokion udal zerga ordainduko da.

**BOSGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

## **6.- SAN ESTEBAN KALEA 16 ETXEAN JARRITAKO IGOGAILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (2022OHAN0015).**

SAN ESTEBAN KALEA 16 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H20337150) ordezkartzan diharduen MIGUEL ANGEL DELGADO CAMINERO jaunak, San Esteban kalea 16 etxean jarritako igogailu berriaren lehen erabilera baimena eskatu du.

### **AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA**



Usurbilgo Udala

2024/04/30

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko uztailaren 21ean, zera erabaki zuen: SAN ESTEBAN KALEA 16 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEARI (IFK: H20438859), San Esteban kalea 16 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea.

<b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 161.155,22 €
<b>Obra amaierako ziurtagiria:</b>	<b>Guztira: 197.402,86 €</b>
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.d artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 2.787,77 € Fidantza (%120): 3.345,32 €

#### LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, SAN ESTEBAN KALEA 16 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H20337150) ordezkartzan diharduen MIGUEL A. DELGADO CAMINERO jaunak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du. Hondakinen kudeaketa amaierako txostena aurkeztu da.

#### TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea eta zergen kitapena egitea proposatu du.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** San Esteban kalea 16 etxean jarritako igogailuari lehen erabilera baimena ematea.

**BIGARRENA:** Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2022ko azaroaren 10ean ezarritako 3.345,32 €-tako fidantza (IE 46-2022) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari honako kontu zenbakian: ES53 2095 5069 0110 7553 1433.

**HIRUGARRENA:** Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaitzari, zergen kitapena egin dezan.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:00k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**